

AUTONOMI OGASUNAK ETA EUROPAKO KOMUNITATEKO AURREKONTUAK

Baleren Bakaikoa Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1992

Baleren Bakaikoa irakasleak liburu hau lau ataletan banatu du. Baina orokorrean bi gai nagusitan sailka ditzakegu. Alde batetik, Estatu espainolean administrazio zentrala eta komunitate autonomoen arteko finantz harremanak eta beste aldetik Europako Ekonomi Elkartearen aurrekontuaren bilakaera sarrera eta gastu nagusien aldetik, gure herriaren zati baten ekarpenak eta jaso duena kontutan harturik.

Lehenengo atalean, Hego Euskal Herriari dagozkion bi Komunitate Autonomoen (KA) estatu zentralarekiko finantz harremanak, bereziak direnez, kontutan hartzen ditu eta Komenio eta Kontzertu Ekonomikoen edukina aztertzen du. Lege hauen edukina, zergaz zerga jasotzeko ezaugarriak, deskribatu ondoren, azpimarratzekoa da Nafarroa eta Estatu zentralaren arteko komenio Ekonomikoari dagozkion atalean egiten duen balorazio kritikoa, batez ere kupoa kalkulatzeko kontutan hartzen diren bai metodologia eta bai egozpen-indizea kuestionatzen bait ditu. Aldiz, beste hiru lurralde historikoei dagozkien egozpen-indizea,

nahiz eta ekonomilari batzuen ustetan Euskal Komunitate Autonomoaren egoera ekonomikoren bilakaera azken hamarkadan kontutan hartuz gero handiegia izan, liburu honen egileak ez du kuestionatzen.

Lurralde komunitateko autonomien finantz iturriak aztertzerakoan Lurraldearteko konpentsazio-fondoaren bilakaera kontutan hartzen du eta oso logikoa iruditzen zaio legistlatu diren azken aldaketak. Horri, eta elkartasun kontzeptuaz esaten duenari, oso interesgarri deritzot eztabaidatu eta sakontzeko. Adibidez, LKF berria indarrean jartzerakoan, honen laguntza bederatzi komunitate autonomori murrizten da. Aldaketa hau indarrean sartzeko ematen duen arrazoi nagusietariko bat EEEK eskualde hauei laguntza ematea erabaki duela da. Irizpide honen arabera, zein izango diren laguntza jasotzen dituzten eskualdeak EEEK erabakitzen duela ematen du, baina EEEK erabaki hau hartzerakoan Estatu espainolak izendatu dituen eskualdeen arabera egiten du, eta hau kontutan hartu behar zen, nire iritziz, puntu honetan.

Nahiz eta liburu honen balorazio laburra egitea nahikoa zaila izan, puntu asko eztabaidarako oso interesgarriak bait dira, orokorki esan dezakegu egilearen ikuspuntua Europako Ekonomi Elkartearen egiturazko fondoan bilakaeraz hitz egiterakoan oso baikorra dela eta fondo horiek dituzten helburuetan sinesten duela. Beste batzuk, zoritxarrez, ez gara hain baikorrak aldaketa hauen aurrean, eta eztabaidagarriak diren puntu guztiak hemen sartzea ezinezkoa izan arren, adibide gisa bere garrantziagatik puntu bat besterik ez dut aipatuko.

Europako Nekazaritzarako fondoaz aztertzen duenean ez du aipatzen ene ustez oso garrantzi handikoa den puntu bat, nahiz eta ez bakarria, hau da, benetazko laguntza honen %75 baino gehiago EEKko nekazarien %25 baino gutxiagori zuzenduta egon dela. Hau dela eta, beste egiturazko fondoan helburuak oso makal gelditzen dira, eta desorekak handituz doaz, txikiagotu ordez. Gainera, estatuen papera oraindik oso garrantzitsua denez eta hauen politika ekonomikoak askotan dauden desorekak gainditzeko benetazko neurriak hartzen ez dituenaz, egiturazko fondoan eragina ez da erabakiorra izango politika ekonomikoa aldatu arte. Europako Ekonomi Elkartearen filosofia ez da aztertzen baina logikoa da, nahikoa gai ukitzen bait ditu liburu honek.

Bukatzeko, eskertzekoa da liburu honen argitarapena gutxienez hiru arrazoiengatik. Guztiz beharrezkoa iruditzen zaidalako Hego Euskal Herriaren eta Estatu espainolaren arteko finantz harremanez idaztea eta zenbakiak ematea. Aldi berean, sarrera bat delako EEKko funtzionamenduaz eta Euskal Komunitate Autonomoaren eta EEKren artean ematen diren finantz fluxu publikoen neurketaren estimazioa egiten saiatzen delako, nahiz eta Nafarroari dagokiona ez sartu. Eta hirugarrena, euskal gizartera eztabaida hau zabaldu behar delako, hemen hartutako testu legalek argi frogatzen bait dute bai Euskal KAn, bai Nafarroan "finantz autonomia" oso handia dela batzuek hainbeste aldiz errepikatu arren, oso murriztuta dagoela Estatu espainolak ateratzen duen legislaziopean egon behar bait du eta muga asko ezartzen bait zaizkio.

Hemen aipatzen diren gaiak eztabaidarako eta Estatu espainolarikiko gure finantz harremanak sakontzeko abiapuntu bat izan dadin nahi nuke, batez ere kontutan harturik aurten kontzertu ekonomikoari dagokion hurrengo bost urteetarako metodologia sinatu dela, eta gizarte barruan eztabaida ez dela zabaldu, bi administrazioen arteko desados-tasunak isilpean mantenduz. Benetazko arazoak aztertzeko liburu hau tresna baliogarria izan daitekeelako itxaropena daukat.

Jolanda Jubeto